


NEREA LOIOLA PIKAZA

# Moko Koko

*eta sekretu sakratua*

ilustrazioak  
Iván Landa



AUKERATU ZURE  
ABENTURA  
+  
IHES-LIBURUA

erein



# Moko Koko

*eta sekretu sakratua*

---

NEREA LOIOLA PIKAZA

Ilustrazioak: Iván Landa

---

*Aukeratu zure abentura + Ihes-liburua*



erein

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2025eko maiatzan*

Azalaren eta liburuaren diseinua:

Iván Landa | Erein

Maketazioa:

Erein

Irudiak:

Iván Landa | Erein

© Nerea Loiola Pikaza

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-029-2

L. G.: D 398-2025

EREIN Argitaletxea.

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20560 Oñati

T 943 783 309

[gertugrafika@gmail.com](mailto:gertugrafika@gmail.com)

[www.gertu.net](http://www.gertu.net)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

*Andoniri, nire besoetan kabitzen zinen garaietan,  
ornitorrinko erregea eta Ori dortoka aurkeztu zenizkidalako.*

# NOLA IRAKURTZEN DA LIBURU HAU?



## LIBURU HAU DESBERDINA DA.

Istorio honetan gertatuko dena ZURE eskuetan dago.

ZU zara protagonista.


Erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi.

### ZER EGINGO DUZU?

Pertsona misteriotsuaren atzetik joan nahi baduzu, ZOAZ 15 ORRIRA

Zuzenean etxera joan nahi baduzu, ZOAZ 51 ORRIRA

ADI! Erabaki bat hartzen duzunean, beste orrialde batean jarraituko du istorioak.



ADI! Enigmak ebazterakoan lortzen duzun zenbakiak, abenturak zein orritan jarraitzen duen adierazten du.



Ausartuko zara?

Gertatzen dena gertatzen dela ere,

**ZORTE ON!**



Hortxe zaude beste behin ere: izeba Floraren zain.

Izeba Flora, biologo ikertzaile eredugarria, beti berandu.

Errepidearen bi aldetara begiratu eta espaloi ertzean eseri zara bil-bil eginda, berokia goraino lotuta. Udazkena bere gorrienean sartua da, zuhaitz biluzietan negua ari da ernaltzen.

Izeba Florarekin bizi zara, duela urte eta erdi, zure gurasoen auto-istripua gertatu zenetik. Zuk ez zenuen harekin bizitzera joan nahi. Zuk ez zenuen ezer aldatzerik nahi.

Gizarte zerbitzuetako langileak esan zizunean zure gurasoen erabakia huraxe zela, zu izeba Florarekin bizitzea, isilik gelditu zinen. Egiaz, garrasika hasteko gogoia zenuen; lehertzeko zorian dagoen sumendi baten moduan bete zinen amorruz,



malkoz eta munstroz. Ama eta aita parean izan bazenitu, buila eta marru eta arrantza, denak egingo zenizkien halako erabaki purtzil zentzugabea hartzeagatik. Parean izan bazenitu.

Auto batek abiada jaitsi du zure ondotik igarotzean, baina ez da izeba Flora.

Ostiralero dauka zure bila pasatzeko ardura, eta, lana aitzakia, ostiralero iristen da berandu, edo beste norbait bidaltzen du bere orde, hura ere berandu iristen dena, edo, zuzenean, zutaz ahazten da. Lana, lana eta lana, emakume muker horrek ez du beste ezer ikusten betaurrekoetatik.

Azkenekoz zutaz ahaztu zenean agindu eta berragindu eta birberragindu zizun ez zela berriz halakorik gertatuko, baina ze ordu den ikusita...

Haserrea borborka, larruazaleko poroetatik lurruntzen zaizu.

## **ZER EGINGO DUZU?**

**Izeba Floraren zain jarraitu nahi baduzu,  
zoaz 58. orrira**

**Zain egoteaz nazkatu bazara,  
eta alde egin nahi baduzu, zoaz 31. orrira**



## Erabaki duzu erregeari haria jarraitzea eta ahate mokoarena ez aipatzea



Denborarik galdu gabe, lanean jarri zarete: Oze pintatzen, zu materialekin laguntzen.

Dortokaren eskuak dardara izugarria du, trazua traketsa gertzen ari zaio.

—Ezin dut... Urduriegia nago –murmurikatu du—. Zuk egin beharko duzu.

—ZER?

—Krokodiloetan amaitu nahi?

Ezezko keinua egin duzu buruaz eta erreleboa hartu diozu. Moko Koko erregeari begiratzen diozu, oihalari ondoren, eta berriz ere erregeari: irribarre behartua du.



4

Egongelan egin den isiltasunak solidoa dirudi. Pintzelari tinko heldu eta hasi egin zara: marra bat behetik gora, goitik behera bestea, berdea, marroia, gorria...

Ez dakizu nola egin duzun, baina erretratua ari da pixkanaka forma hartzen, eta badu Moko Koko erregearen antzik.

Buruhauste handienak, jakina, mokoak eman dizkizu: txan-txangorriaren moko finik atera ez bazaizu ere, ahate baten moko zapaletik oso urrun dago behintzat.

Ozeri begiratu diozu: Baiezkoa egiten du buruaz! Moko Koko erregeari begiratu diozu: jada ez dago zuen lanari adi, irensten ari den karramarro entsaladari baizik.

Oze zerbaiten bila hasi da pintura potoetan. Banan-banan aztertu ditu autotik ekarritakoak eta jauregian bertan zeudenak. Ezezko keinua egiten du buruaz.

—Hemen daukat moko margotzeko urre kolorea –esan diozu.

—Purpurina –erantzun dizu.

—Zer esan duzu?

—Purpurina emango diogu erregearen mokoari. Horixe izango da gure ukitu berezia.





—Ez dakit ba...

—Gustatuko zaiot! Baina ez dut aurkitzen, autoan utziko nuen. Bila joango naiz.

—Egon! –atera zaizu, ez duzulako egongelan bakarrik geratu nahi-. Ni joango naiz purpurinaren bila, haize pixka bat behar dut.

Ozek sorbaldak eta eskuak jaso ditu keinu axolagabeen. Pintzel finarekin hasi da zuk egindakoak errepasatzen.


Autora bidean, arreta piztu dizu hormaren kontra erdi botata dagoen egurrezko kutxa handi batek. Ziur zaude sartu zaretean ez zegoela. Gerturatu zara eta zabaltzen saiatu: Kandadu batez itxita dago.

Kutxa alde batera utzita, autorantz hartu duzu. Pauso gutxi batzuk emanda, ordea, gelditu egin zara: Kutxan zer dagoen jakin nahi duzu bai ala bai.

**Kutxa zabaltzeko behar duzuna  
hurrengo orrialdean dago!**



SARRERA



LAGUNTZA: Sarreatik hasi eta segi bideari. Irteera bakarra du labirintzok, aditi